

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Baserriak eta etxebizitzak berreskuratzeko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2026ko apirilaren 16ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 903928.

Diru-laguntza orokorreki buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/903928>).

Lehenengoa. Onuradunak

Laguntza hauen onuradun izan ahalko dira pertsona fisiko edo juridiko, pribatu edo publiko guztiak oro, ondasun-erkidegoa edo beste edozein unitate ekonomiko edo ondare bereizi, nortasun juridikorik ez izan arren, baldin eta jabe, errentari, gozamedun edo eskubide errealeen titular badira, edo familia bakarreko etxebizitza edo birgaitu beharreko eraikineko elementu pribatiboak erabiltzeko eta aprobetxatzeko legitimatzen duen beste edozein eskubide badute, betiere Zuiako udalerrian kokatuta badaude.

Bigarrena. Xedea

Deialdi honen xedea da Zuiako udalerrian erabilera nagusia bizitegirakoa duten baserriak, etxebizitzak eta eraikinak berreskuratzeko eta birgaitzeko diru-laguntzak arautzea, arkitektura-ondareari eusteko eta ohiko etxebizitza edo alokairuko etxebizitza erabiltzera bideratzeko, Euskal Gobernuaren alokairu-programen barruan. Laguntzak lehia-erregimenean eta Zuiako Udalaren plan estrategikoan xedatutakoa betez emango dira.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Dirulaguntza honen oinarri arautzaileak Udalbatzak onartu zituen 2026ko apirilaren 16an eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntzen zenbatekoa honela kalkulatu da: babes daitekeen aurrekontuaren, obra motaren eta bizikidetz-unitatearen diru-sarrera haztatuen arabera, oinarri arautzaileetako 12. artikuluko taulan ezarritako zenbatekoetan oinarrituta.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Eskaerak oinarri hauek probintziako aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2026ko azaroko azken egun baliodunerarte aurkeztu ahal izango dira.

Dokumentazioa udaletxeko erregistro orokorrean aurkeztuko da.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian daude.

Murgia, 2026ko maiatzaren 6a

Alkate-udalburua
UNAI GUTIERREZ URKIZA